LITERATURA ETA BALOREAK

Irakurtzeko eta eztabaidatzeko liburuak	Zikloak	Helburuak	Laburpenak
Adiskide onak / François, Paul (2008)	1 eta 2	**Elkarbizitza:** - Adiskidetasuna - Besteetaz arduratu	“"Elurra ari da eta ari : xuri-xuria da kanpo guzia. Untxi ttipi horrek ez du ezer jateko. Deus. Atea irekitzen du : "Bru... Zer hotza !" ..." “ **Ohar orokorra**: CD-Audioaren edukia
Ahatetxo itsusia / Andersen, Hans Christian (2004)	1 (testua egokituz) eta 2	**Alteritatea:** - Desberdintasuna ulertu eta onartu	Hiru urtetik gorako haurrentzat prestatu da batik bat ipuin hau. Marrazki ederrek txikienen arreta bereganatuko dute eta nagusienak irakurketan trebatzen hasiko dira.
Aitak esan dit / Desbordes, Astrid (2017)	1, 2 eta 3	**Alteritatea:** - Norberak nortasuna eraiki - Emozioak kudeatu	Xubanek galdera ugari egiten ditu, etengabe…, bere beldurrak agerian utziz. Aitak lasaitu egingo du erantzun egokiekin, eta adorea, askatasuna eta maitasuna eskainiko dizkio hitz ederren bidez. “Bizitzaren bidaiak” haurrengan pizten dituen beldurrei aurre egiteko lagungarria den kontakizun poetikoa.
Ami-ami / Rascal (2009)	2 eta 3	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu - Besteetaz arduratu	Haran polit batean elkar ezagutu gabe bizi ziren untxi ttipi prestu bat eta otso handi gaizto bat. Untxi ttipi prestua haran zolan bizi zen, etxe ttipi zuti batean. Otso handi gaiztoa haran kaskoan bizi zen, etxe handi beltz batean.

Animalia guztiak ez dira urdinak / Boutignon, Béatrice (2008) 	1 eta 2	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu	**Desberdintasun txikien liburu handia** Animalia guztiak ez dira urdinak jolas egiteko nahiz irakurtzeko liburua da, eta behatzeko, barre egiteko, hitz egiteko eta ikasteko gonbita egiten dio haurrari. Liburu bizia, poetikoa eta samurra..., bikaina hazten laguntzeko.
Arraroa / Azpiazu, Ainara (1980-...) (2017) 	2 eta 3 Oharra: Irudi eta testoaren arteko osaketa	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu	Nire auzokideen desberdintasunak deskubritzen ditudan bitartean, geroz eta gauza gutxiago iduritzen zaizkit arraro !
Arrosa eta leuna / Turin, Adela (2013) 	2	**Alteritatea :** - Norberak nortasuna eraiki - Neskak eta mutikoak berdin konsideratu	Maiteak esaten zieten aitek , eguerdi-lili guztiak jaten ez badituzue, peoniak jaten ez badituzue, ez zarete inoiz izango zuen amak bezain polit eta arrosak, eta ez duzue inoiz begi distiratsurik izango. Inork ez du zuekin ezkondu nahiko handitzen zaretenean...
Aske jaio gara gizaki guztiok / Bovnel, Jon (2008) 	2 eta 3	**Giza eskubideen adierazpena:** - Desberdintasuna ulertu eta onartu - Askatasunez adierazi - Neskak eta mutilak berdin konsideratu - Besteak errespetatu - Arauak errespetatu	Planeta honetan bizi garen gizon, emakume eta haur guztiok 30 atalez osatutako aitorpen berezi batez babestuta gaude: hori da, hain zuzen ere, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Nonahi bizi bagara ere, nonahi bagaude ere, horiek dira gure eskubideak, eta inork ezin dizkigu kendu.
Axuri bihurria / Jean, Didier (2009) 	2 eta 3 (Ustiapenaren pedagogikoa)	**Elkarbizitza:** - Norberak nortasuna eraiki - Norberak bere kabuz pentsatu - Besteetaz arduratu - Desberdintasuna ulertu eta onartu	Otsoak ardiak klikatzen ditu betidanik. Hortan denal ados gaude. Beraz, otsoak ardi eria eraman duelarik, ez dugu hitzik erran, gu ez ginelakotz eri. Otsoak ardi beltzari eraso diolarik, ez dugu hitzik erran, gu ez garelakotz beltzak. Baina otsoak aharia klaskatu duenean, gogora jin zaigu laster gure aldi izanen zela...

Barruko lehoia / Bright, Rachel (2017) 	1 eta 2	**Elkarbizitza:** - Norberak nortasuna eraiki - Norberak bere kabuz pentsatu	Ez duzu handia eta ausarta izan beharrik zeure orroa aurkitzeko. Txikia izatea ez da beti erraza. Baina Saguk ekin dio bere orroa aurkitzeko bidaiari. Horrela deskubrituko du izakirik txikienak ere izan dezakeela lehoi baten bihotza.
Beldartxo lagunkina / Barnetxe, Xantal (2012) 	1 (Ustiapenaren pedagogikoa)	**Elkarbizitza:** - Desberdintasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu - Norberak nortasuna eraiki	Beldartxoa aspertzen da ; lagun bat aurkitu nahi du, baina marmutxek bizkar ematen diote. Itxuraldatu eta, zorte hobea gertatzen zaio.
Edur bidaian / Beer, Hans de (2005) 	1 eta 2	**Elkarbizitza:** - Adiskidetasuna - Elkar lagundu - Norberak nortasuna eraiki	Hartz polar txiki bat izotz puska baten gainean galdu da itsasoan. Upel baten gainean iritsi da Afrikako itsasertzera. Han ikasiko du zuriaz gain badela makina bat kolore. Hipopotamo bat ezagutuko du gainera, eta balea baten bizkar gainean itzuliko da bere izotzezko eskualde zurira. Animalien ipuin jostagarri samurra.
Egun on esan behar da! / Jadoul, Emile (2019) 	1	**Elkarbizitza:** - Besteak errespetatu - Arauak errespetatu	Liburu polit hau berez gehiegi lantzen ez den gai bati buruzkoa da: elkarbizitza eta adeitasuna. Umore finez, onginaiz eta tentuz jositako kontakizun honek ohartarazten gaitu (haurrak zein helduak) ondokoa ikustea eta aintzat hartzea begirune keinu bat dela.

Ene adiskidea izan nahi duzu? / Battut, Eric (2018)	1 eta 2	**Elkarbizitza:** - Desberdintasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu - Norberak nortasuna eraiki	Sagu berdeak bera bezalako adiskide bat xerkatzen du, baina animalia guziak bizkarrez jartzen zaizkio. Elefante batekin zorte hobea ukanen ote du?
Ene Itsugidari, Ene Kapitain / Moure, Gonzalo (2020)	2 eta 3	**Elkarbizitza:** - Desberdintasuna ulertu eta onartu - Norberak nortasuna eraiki	Emozioa eta edertasuna, aita baten eta haren alabaren arteko maitasun sakona, eta ikusteko mugetatik harago ikusteko gaitasuna, horiek guztiak agertzen dira liburu honetan. Izan ere, iluntasunean bizitzeak edo ikus-eremu murriztua izateak ez dute zertan bizitza oso baten garapena oztopatu. Eta, pertsonaia hauen kasuan bezala, eskolarainoko ibilbidea zinezko abentura bihurtzen da.
Etxe honetan / Usandizaga Lopez, Aintzane (2019)	2 eta 3	**Elkarbizitza:** - Desberdintasuna ulertu eta onartu - Arauak errespetatu - Besteak errespetatu	Gaur aitonaren etxera noa asteburu-pasa. «Ez dut ulertzen nola moldatzen zareten hain ondo!» esaten didate barrez amak eta osabak. Egia da aitona gauza txikiek asko larritzen dutela... baina oso erraza da bere etxean nahi duzuna topatzea[...]
Familia giroan : Desberdintasun txikien liburu handia / Boutignon, Béatrice	1 eta 2	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu	Jolas-liburu honetako animaliak familiatan bilduta daude: antzekoak dira, baina, aldi berean, desberdinak. Irakurleari dagokio deskribapenen arabera familiak bereiztea. Familia eredu asko daude: familia gurasobakarrak, tribuak, familia homoparentalak eta familia berregituratuak. Liburu hunkigarria eta samurra, ongi pasatzeko, baina baita gure arteko desberdintasunetatik ikasteko ere.

Galtzerdi marradunak / Goyeneche, Delphine (2014)	2	**Elkarbizitza:** - Desberdintasuna ulertu eta onartu	Maddi lamin bat da, eta bere munduan lagunengandik baztertua da. Urrunera, gizakien mundura joatera erabakitzen du bere amaren abisuaren kontra eta bere sekretua galtzerdi marradun batzuekin gordeturik haurren artean bizi da. Ohartzen da haurrek Itxaro deitzen den neskato berezi bat baztertzen dutela.
Gose naiz ! / Ross, Tony (2003)	1	**Elkarbizitza:** - Arauak ulertu eta errespetatu	Gose da printzesa txikia, baina gauzak ondo eskatzen ikasi behar da.
Haserre gorria / Allancé, Mireille d' (2016)	1 (Ustiapenaren pedagogikoa)	**Alteritatea:** - Emozioak kudeatu	Peiok biziki egun txarra iragana du. Ez da umore onean, eta gainera, aitak erasiatu du. Orduan Peiok bere baitan sentitu du Gauza ikaragarria igaten. Gauza horrek makur handiak egin ditzake... aski goiz ez baldin bada geldiarazten.
Honelakoxea da nire arreba, eta zer ? / Sagarzazu, Pako (2001)	2 eta 3	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu - Besteetaz arduratu Gako-hitza: **elbarritasuna** (Down sindromea)	Handiak eta txikiak, berritsuak eta lotsatiak, gizenak eta argalak... pertsona guztiok ez gara berdinak. Eta zer ? Liburu hau ere desberdina da, horrexegatik da polita. Baietz gustatu !

Intza eta Tomas - Sorginaren sekretua / Dilet, Elise, Hariñordoki, Antton (2020)	3 eta 4 (Ustiapenaren pedagogikoa)	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu **Alteritatea:** - Norberak nortasuna eraiki - Adiskidetasuna	Herrian sorginei buruzko ikuskizun baten prestatzen hasi direnetik, gauza bitxiak gertatzen dira. Intzak eta Tomasek misterio handi eta ttipiak zilatuko dituzte. Abentura horien harira, lehengo sekretuak eta oraingoak hobeki ulertuko dituzte, sorginen denbora ez baita hain aspaldikoa...
Jon eta Beñat / Browne, Anthony (2005)	2 eta 3	**Elkarbizitza:** - Desberdintasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu Gako-hitza**: jazarpena**	Jon bakarrik dago. Ez du lagunik. Baina, Beñat ezagutzean, guztia aldatu gingo zaio.
Kadira urdina / Boujon, Claude (1930-....) (2008)	1 eta 2 (Ustiapen pedagogikoa)	**Alteritatea:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Norberak nortasuna eraiki - Adiskidetasuna	Album honetan, tonu umoretsu batean, irudimenaren garrantzia azpimarratzen da. Bi lagunek basamortu erdian aulki urdin bat ikusten dute. Berehala jolasean hasten dira gauza liluragarri eta erabilkor honekin.
Kamile eta adiskide berria / Delvaux, Nancy (2008)	1	**Elkarbizitza:** - Desberdintasuna ulertu eta onartu Gako-hitza: **Elbarritasuna**	Kamilek lagun berria egingo du, lagun berezia. Leo du izena eta elbarritua da, baina gurpildun aulki batean egon arren, tximista baino azkarragoa dela deskubrituko du Kamilek.

Kamile ez dago jostailuak uzteko prest / Delvaux, Nancy (2004)	1	**Elkarbizitza:** - Besteak errespetatu - Arauak errespetatu	Kamile ez dago jostailuak uzteko prest
Kandido eta besteak / Pintadera, Fran (2018)	1 eta 2	**Alteritatea:** - Desberdintasuna ulertu eta onartu Gako-hitza: **elbarritasuna**	Denak gara desberdinak. Premisa horrekin ageri zaigu Kandido: pertsona xelebrea, inguratzen duen munduaren aurrean den bezalakoa azaltzeko premia duena, onartua izateko premia duena. Harrigarria da hain testu soil honek nola eragiten duen hain gogoeta sakon eta beharrezkoa, gure gizarte zail eta katramilatu honetan.
Kezkamuxelak / Browne, Anthony (2006)	1 eta 2	**Alteritatea:** - Desberdintasuna ulertu eta onartu - Norberak nortasuna eraiki - Emozioak kudeatu	Ibai kezkatuta bizi da. Gauetan amets gaiztoak izaten ditu eta ez daki zer egin. Amonak bere kezkak bukatzeko behar duena ematen dio.
Koloretako munstroa / Llenas, Anna (2016)	1	**Alteritatea:** - Emozioak kudeatu - Norberak nortasuna eraiki	Koloretako munstroak ez daki zer gertatzen zaion. Emozioekin nahasi da, eta nahaspila hori konpondu behar da orain. Alaitasuna, tristura, amorrua, beldurra eta lasaitasuna ordenatzeko gai izango al da?
Lapindizita / Naumann-Villemin, Christine (2019)	1 eta 2	**Elkarbizitza:** - Desberdintasuna ulertu eta onartu - Norberak nortasuna eraiki - Emozioak kudeatu **Gako-hitzak**: bullying - jazarpena elkarbizitza raketa	Gaixo gure Imanol! Ez du ulertzen zer gertatzen zaion: BIZIKI min du tripan. Menturaz Hanibal gaiztoarengatik... Egunero haren mehatxuak jasaten ditu Imanolek, eta tripako mina gero eta bortitzagoa zaio.

Lucius Dumben berebiziko bidaia / Batzuen artean (2013)	2 eta 3	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu **Giza eskubideen adierazpena:** - Askatasunez adierazi - Neskak eta mutilak berdin konsideratu - Besteak errespetatu - Arauak errespetatu	Behin batean, munduko zientzialari garrantzitsuenek enkargu berezi-berezi bat jaso zuten: tresna bat aurkitu behar zuten, gure mundu honetako biztanle guztiak zoriontsu izatea ahalbidetuko zuena..." Bidaia zoragarri bat Giza Eskubideetan zehar !
Mamuek ez dute atea jotzen / Canal, Eulalia (2017)	1 eta 2	**Elkarbizitza:** - **Adiskidetasuna** - **Besteak errespetatu**	Hartza eta Muxarra lagun handiak dira, eta beti dabiltza elkarrekin jolasean. Zoragarria da altxorrak aurkitzea, edo eszena izarrak balira bezala abestea eta dantzan egitea. Bainan halako arratsalde batean Hartzak Muxarrari esan dio Ahatea gonbidatu duela berekin jolastera. Ezin liteke !
Marimutila naiz, eta zer? / Jaka, Ana (2016)	2 eta 3	**Alteritatea :** - Norberak nortasuna eraiki - Neskak eta mutikoak berdin konsideratu	Ioneri marimutila deitu diote eskolan. Futbolean jokatzen duelako, ile motza daramalako… Berari bost axola: gustatzen zaizkion gauzak gustatzen zaizkio, eta kitto. Izeba Naiararen ezkontzarako, ordea, arazo bat sortuko da, gurasoek soineko bat jantzarazi nahi baitiote Ioneri…
Martin / Agirre, Alaine (1990-....) (2016)	2 eta 3	**Alteritatea :** - Norberaren nortasuna eraiki **Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu **Gako-hitzak**: autismoa	Martin desberdina da. Hala esaten dute denek. Gauzak egiteko bere modua daukalako, edo gehiago kostatzen zaiolako. Baina kontalariak badaki Martin ez dela arraroa, normala dela eta maitagarria... nahiz eta berezi samarra izan.

Martzelo itsua / Añorga, Pello (1956-....) (2018)	2 eta 3	**Alteritatea :** - Norberaren nortasuna eraiki **Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu	Martzelo haur itsu bat da. Halere, nahiz eta itsua izan eta begiak erabili ez beste haurrek bezala, oso ondo baliatzen da gainontzeko zentzuekin ; esan nahi da eskuekin edo belarriekin. Hain ondo entzuten du, hain ondo ukitzen eta usaintzen, ezen, begien faltan, badirudi ikusi egiten duela belarriekin, ikusi eskuekin eta ikusi
Mokotxiki / Bilbao, Leire (1978-....) (2017)	1 eta 2	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu	Moko txikidun txori txikia hipopotamoaren bizkarrean bizi da… Hortik aurrera, irakurleak berehala identifikatuko du txikiaren eta handiaren garapena, ilustrazioak ikusi hutsarekin.
Munstro urdina / Dios, Olga de (2020)	1 eta 2	**Elkarbizitza:** - Enpatia sentitu - Besteak errespetatu - Arauak errespetatu - Norberak nortasuna eraiki	Honakoa lagun-talde baten istorioa da, hazi zena pentsatuz onakoa bere ekintzen ondorioez arduratu gabe jolas zitekeela. Ikasiko al dute ongi pasatzen inguruari kalte egin gabe?
Neba-arrebak ! / Bonilla, Rocio (2018)	2	**Elkarbizitza:** - Besteak errespetatu **Alteritatea :** - Norberaren nortasuna eraiki	Ez dut anaia maite. Astelehen-asteazkenetan, eskolatik irtendakoan, etxera eraman behar izaten dut. Ezin izaten naiz lagunekin hizketan geratu. Traba besterik ez du egiten. Beti ari da nere gauzak ukitzen....
Neskak eta mutilak / Mayor, Aingeru (2016)	2 eta 3	**Alteritatea :** - Norberaren nortasuna eraiki - Neskak eta mutikoak berdin konsideratu **Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu	Munduan neska eta mutil asko daude. Milioika. Eta ez daude bi berdin. Norbera bere erara da neska edo mutila. Badira ile luzea daramatenak, eta baita motza daramatenak ere. Belarritakoak daramatzatenak, eta ez daramatzatenak. Neska asko printzesaz mozorrotzen dira, eta zenbait mutil ere bai. Eta badira pirataz mozorrotzen diren neskak, mutil asko bezala.

Ni bezalako haurrak / Kindersley, Barnabas	2 eta 3	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu	Mundu guztiko haurrak beren etxe eta ametsei buruz mintzo zaizkigu.
Nire ahotsa / Fragoso, José (2018)	2	**Alteritatea :** - Norberaren nortasuna eraiki	Bazenekien zure ahotsari esker edozer aipatzeko gai zarela? Bazenekien ahotsarekin nahi duzun guztia egin dezakezula? Eta, batez ere, bazenekien ahotsarekin esaten duzunak irudikatzen zaituela eta urrun eraman zaitzakela?
Nire aita etxekoandrea da, eta zer ? / Ugidos, Silvia (2001)	2 eta 3	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu **Alteritatea :** - Norberak nortasuna eraiki - Neskak eta mutikoak berdin konsideratu	Lucilaren aita ez da irakaslea, ez da arotza, ez da taxista... Lucilaren aita etxekoandrea da. Badaki tarta goxoak egiten, badaki arropak garbitu, zabaldu eta lisatzen. Baina batez ere bere ingurukoak zorintsu egiten daki, ipuinak kontatzen, dantzan, bihurrikeriak egiten... eta bere seme-alabei eskolako lanetan laguntzen daki.
Niri ez zait futbola gustatzen, eta zer ? / Egaña, Andoni (1961-...) (2000)	2 eta 3	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu **Alteritatea :** - Norberak nortasuna eraiki - Neskak eta mutikoak berdin konsideratu	Aita futbol zale amorratua da. Baina semeari ez zaio futbola batere gustatzen. Zozokeria iruditzen zaio gauza borobil baten atzetik korrika ibiltzea. Ipuin honetako mutikoari sugandilak, txalburuak eta zomorroak gustatzen zaizkio.

Nork agintzen du borobilean / Alberdi, Uxue (1984-...) (2017)	1	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu - Arauak errespetatu **Alteritatea :** - Norberak nortasuna eraiki - Neskak eta mutikoak berdin konsideratu	Nork agintzen du borobilean ?
Nork agintzen du eskolan? / Alberdi, Uxue (1984-...) (2017)	1	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu - Arauak errespetatu **Alteritatea :** - Norberak nortasuna eraiki - Neskak eta mutikoak berdin konsideratu	Nork agintzen du ikasgelan? Patioan? Pasillloan? Komunean? Elkar ikusten al dugu topo egiten dugunean?
Oliver Button poxpolin bat da / dePaola, Tomie (2020)	1 eta 2	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu - Arauak errespetatu **Alteritatea :** - Norberak nortasuna eraiki - Neskak eta mutikoak berdin konsideratu Gako-hitzak: **bazterketa, trufa**	Oliver Buttoni poxpolin deitzen zioten. Ez zuen gogoko mutikoak jolasten ohi diren jolasetan ibiltzerik. Aitzitik, basoan paseatzea eta soka-saltoan ibiltzea gustatzen zitzaion. Liburuak irakurtzea eta marraztea maite zuen…
On dagizula, Untxi jauna ! / Boujon, Claude (1930-....) (2006)	1 eta 2 (Ustiapen pedagogikoa)	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu **Alteritatea :** - Norberak nortasuna eraiki	Animaliak dira protagonista ipuin honetan. Bertan, untxi txiki baten hazkundea kontatzen digu. Untxiak ez du azenarioa jan nahi. Beste animaliek zer jaten duten ikustera abiatzen da eta ibilbide luzea egingo du, berriz ere, bere etxera bueltatu arte.

Ortzadar arraina : gera naiteke zuekin ? / Pfister, Marcus (2006)	1 eta 2	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu - Berdin konsideratu	Ozeanoetako arrainik ederrenak, Ortzadarrek, bere jantzi distiratsua zatitu eta lagunen artean banatu zuenez gero, nork bere ezkata distiratsua du aldean, adiskidetasunaren seinale. Handik aurrera, familia batu bat osatu dute arrainek eta bakean bizi dira elkarri lagunduz ozeanoaren sakonean. Hain ongi hartzen dute elkar, kanpotik etorritako inor ez baitute beren artean onartu nahi. Hala gertatu da Legaztxo arrain txiki galdua hurbildu zaienean.
Otso bihozbera / Pennart, Geoffroy de (2008)	1 eta 2 (Ustiapen pedagogikoa)	**Alteritatea :** - Norberak nortasuna eraiki - Besteak errespetatu - Berdin konsideratu - Emozioak kudeatu	Lukas otsoari gurasoen etxea uzteko unea iritsi zaio. Gurasoen aholkuen artean, Lukasek aitarengandik jan behar duenaren zerrenda jasotzen du. Zerrenda horretan, ipuin batzuetako pertsonaiak azaltzen dira. Ipuinean zehar pertsonaia horiekin topo egingo du, baina ez ditu jango, gure otsoa bihozbera delako... Azkenean, bere menuan agertzen ez den beste pertsonaia batekin topo egingo du; ogro batekin, eta hori bai jango duela.
Otsoño / Solotareff, Grégoire (2011)	1 eta 2	**Alteritatea :** - Norberak nortasuna eraiki - Berdin konsideratu - Emozioak kudeatu **Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu Gako-hitzak : **adiskidantza eta beldurra**.	Usaian lagun ez diren otso eta untxi baten arteko istorioa. Betiko lagunak ?
Piztiak bizi diren lekuan / Sendak, Maurice (2000)	1 eta 2	**Alteritatea:** - Emozioak kudeatu	Gure hurbilean daukagu mundu miresgarri bat, eta hartan bizi dira, eguneroko zeregin arruntetatik urrun, piztia xelebre batzuk..

Tunela / Browne, Anthony (2003) 	2	**Elkarbizitza:** - Desberditasuna ulertu eta onartu - Besteak errespetatu **Alteritatea :** - Norberak nortasuna eraiki	Lorea eta bere anaia ez dira ondo konpontzen. Baina tunelarena gertatzean, gauzak aldatu egingo dira.
Urdaburutarrak / Browne, Anthony (2006) 	1, 2 eta 3	**Alteritatea :** - Norberak nortasuna eraiki - Besteak errespetatu - Neskak eta mutikoak berdin konsideratu **Elkarbizitza:** - Besteak errespetatu	Album ilustratu honetan, familia baten gorabeherak azaltzen zaizkigu. Amak darama etxeko martxa eta hura desagertzen denean... Hitzen beharrik gabe, ilustrazioek islatzen dute gizartean oso maiz etxeko andreek bizi duten egoera familiarra.
Urdin Txiki eta Hori Txiki / Lionni, Leo (2013) 	1 eta 2	**Elkarbizitza:** - Besteak errespetatu - Arauak errespetatu **Alteritatea :** - Norberak nortasuna eraiki	Egun batean Ama Urdin erosketak egitera atera zen. "Geratu etxean", esan zion Urdin Txikiri. Baina Urdin Txiki Hori Txikiren bila joan zen. Kaleaz bestaldeko etxean ez zegoen inor, ordea. Alde batera begiratu zuen, eta bestera eta alde guztietara, harik eta, bat-batean, izkina pasata, Hori Txiki aurkitu zuen arte! Elkar besarkatu zuten pozaren pozez, behin eta berriro besarkatu ere...
Yakouba / Dedieu, Thierry (2005) 	3	**Alteritatea :** - Norberak nortasuna eraiki - Norberak bere kabuz pentsatu - Emozioak kudeatu - Askatasunez adierazi **Elkarbizitza:** - Besteak errespetatu - Arauak errespetatu	"Inguruko eskualde guzietarik, tam-tam soinua entzuten da. Afrikaren erdi-erdiko herri ttipi batean, apairu bereziaren prestatzen ari dira. Besta eguna da. Beren burua makillatzen eta apaintzen dute. Egun sakratua da. Jende helduen taldea elkartzen da eta gerlari bilakatzeko adina duten haurrak hautatzen ditu. Yakoubarentzat egun handia da...."